

'Goiz gorri, arrats euri', Euskal Herrian eta Mesopotamian

Eguraldi iragarpenen historiako pasarte esanguratsuenak jorratu zituen Pello Zabala meteorologoak EHuko Gasteizko Irakasle Eskolan eginiko lagunarteko agerraldian

Iban Ocio • Gasteiz

«Iragarpen meteorologikoen zantzurik aspaldikoena Mesopotamiako zibilizazio ahaltsuaren garaiko adreilu nimo baten eginko izkribua da: goiz gorri, arrats euri zioen hark; gurean ere sona handiko atsotitza da». Pello Zabala meteorologoa mintzo da. Arantzazuko fraideak Gasteizko Irakasle Eskolara jauzi egin eta eguraldi aurreikuspenen bilakaeraz jardun zuen, Euskara Batzordeak hala galdetuta.

Eguraldi iragarpenen historian itzuli azkarra

«Kulturak bere aztarnak utzi dituen bazter guztietan iragarpen meteorologikoein harremana duten erretrau, irudi eta bestelakoak aurki daitezke», ekin dio Zabalak solasaldiari. Ondotik, zeharkaldia egin du eguraldi au-

Pello Zabala Meteorologoa

**Gaurko datu bilketa
sistematikoetatik
haratago, lehenagoko
errefrauk izan dira
jakintza meteorologiko
ez-zientifikoaren
gordeleku»**



reikuspenen historian barna. Egipton hasi eta Kioton klimaren inguruan eginiko gailurre-raino eraman ditu begi handiz so egiten dioten ikasle eta irakasleak.

Zabalak esan du antzinateko

zibilizazioen artean greziarrak erreparatu ziola zeruari arreta gehienarekin. «Faraoien garaian, hieroglifikoen bitartez egiten zizuten eguraldi aurreikuspenak; erromatar sasi-meteorologoei bertsotan egiten

beharra», adierazi du Arantzazukoak, entzuleen barre algarra eta harridura ere sorraziz.

Erdi Arora bidaia egin eta Zabalak azaldu du orduko baserritar eta abeltzainak bihurtu zirela eguraldiari atxikitako erre-

zituzten iragarpenok. Greziarrek, berriz, laborantzarako, gerrara abiatzeko eta eraikuntza lanak egiteko baliatzen zuten meteorologoen

frauen igorle eta sineste «fedunen» babesle. «Areago oraindik, XX. mendeko datu bilketa sistematikoetatik haratago, antzinatek gaur arte biziraun duten esaerok dira jakintza meteorologiko ez-zientifikoaren gordeleku».

Euskal baserritarren «atsotitz santuak»

Euskal Herrian ere izugarri hedatu ziren eguraldiaz mintzo diren atsotitzak. «Gure baserrita-

EHKME Fundazioa.

Gasteizko Irakasle Eskolan jakinarazi zuen Pello Zabalak EHKME Euskal Herriko Klimatologia eta Meteorologia Fundazioak biltzen dituen aditu euskaldunek webgune «txukun-txukuna» sortu dutela: www.ehkme.com. Aurki aktibatuko duten helbide elektronikoan «zintzilikatuko» dituzte, besteak beste, mapa meteorologikoak, satellite argazkiak eta hiru eguneko iragarpenak; euskarazko azalpenak denak ere.

rrak ez ziren batere liburuzaleak, baina eguneroko beharrak eta elizkoitasunak moldatutako esakuneen sorburu oparo bilakatu dira. Atsotitz santuak ziren garaietakoak, kutsu erlijioso handikoak», adierazi du Zabalak. «Jakina, erretrauok egia osoa aipatzen dutenik esatea gehiegikeria litzateke. Ordea, ingurunearen behaketan oinarritzen zirena argi dago», ondorioztatu du. «Egun, ehunka milioi xahutzen dituzte aparailu meteorologikoein; lehenago, eguraldiak berak azalarazitako aztarnak ziren iragarpenak egiteko gailu behinena, eta atsotitzak behaketan lekuko».

«Kiotoko beroak» neguak epelduko ditu

Joan den milurtekoa bazter utzi eta hitzaldiaren amaierarako XXI. gizaldiko ika-mika meteorologikoak jorratu ditu Zabalak, bidenabar, entzuleriaren itaunak ere erantzunez; nolako negua izango dugu?

«Dudarik ez da gizakion arduragabekeriak aldaketa klimatiko bortitzak sorrazten diharduela. Ozono geruza puskatu, poloen urteza bermatu eta lautada berdeak amaitu ditugu. Klimaren inguruko gailurrean Kioton hitzordua eginiko herrialdeen hondaketek neguak epelduko dituzte. Eta oraino ez ei dira ohartu aldaketok gizakiaren ongizatea ere kolokan jartzen dutena», deitoratu du Zabalak. «Egindako ankerkeriak bueltan etorriko zaizkigu, agudo, gainera».

Aurten behintzat ez dugu hotzik pasako. Ez aspaldian jasan ohi genuena bederen. «Negua bero dator», azaldu du Zabalak, ironia ospinez.

Hitzaldia amaitu da. Hartara batutako lagunak kalera irten eta hotzez dardarka hasi dira. Negu epela? Bihar apika...